KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2026ko azaroa - 276 zkia.



MUTRIKU ARRAUN TALDEA

HAITZULOETAKO LEHOIA ARNON
FEDEA ETA SINESMENA BAINO ASKOZ GEHIAGO • 1936KO IRAILA: DEBABARRENAKO FRONTEA
BERTAN: MUTRIKUARRENTZAT ZABALIK

línea VERDE
SMART CITY

MUTRIKU HOBETZEKO APLIKAZIOA

DESKARGATU HEMEN: App Store

DESKARGATU HEMEN: Google Play



Mutrikuko Udala

Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA

OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Alzheimer elkartea 943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai ..... 943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz ..... 943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar) 943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa ..... 943 60 70 48 /679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Kontsortzioa 943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua 943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua 943 60 71 37
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

Zizzo taxia 688 681 013
Lurraldebus 900 300 340
Pesa Autobusak 900 121 400
BizkaiBus 902 222 265
EuskoTren 944 333 333
Loiuko Aireportua 905 505 005

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87

Iritzixa

Malen Aldalur Azpillaga

MENDE LAURDEN

Badira herrian leku batzuk beste batzuk baino lehenago ur-hartzen dutenak, estoldak gainezka egiten dutenak. Ura pixkanaka-pixkanaka metatzen da, lurreko tapak gorantz egin eta lehertu arte. Mutrikuren kasuan, eurite garaian, ahateen iturria izaten da maiz ur-putzu bihurtutako hirugarren pistina. Eta halaxe daude 25 urtez plaza horren hondarrean bizi diren herriko bi proiektu, eztanda egin edo ito.

Boluntario-lana eta lan militantea gero eta garestiago dauden garaiotan, ez da erraza 25 urtez proiektu bati eustea, eta, horretarako, ezinbesteko baldintza da erreleboa. Mutrikuko Gaztetxeak indartsu heldu dio bere 25. urteurrenari. Kalaputxi herri-aldizkariko azken azaleko batean ikusi ahal izan ditugu 25 urte hauetan gaztetxeko horma hezeetatik pasatako hainbat kide. Ateak itxi dituen garaietan ere, beti egon da norbait itolarritik ateratzeko eta kateari eusteko. Baina bizitzak nola, Kalaputxik ere txanpon beraren bi alde ekarri dizkigu ale bakar batean: Gaztetxearen 25. urteurreneko ospakizuna eta Kalaputxiren behin-behineko agurra, 25 urteren ondoren.

Azken 25 urteak gure bizitzaren zati kontzientearen atal handiena hartzen duten belaunaldiko kideontzat zaila da Gaztetxerik edo Kalaputxirik gabeko herri bat irudikatzea. Ni biekin hasi naiz. Normaltzat hartu izan dut hilero etxera herri-aldizkaria iristea; etxez etxe banatu izan dut ikaskideekin batera, ikas-bidaiarako dirua ateratzeko; eta azken urteetan, urtean behin, tarte honetan idazten aritu naiz. Nori ez zaio irribarre bat atera, fakturak eta propaganda baino iristen ez diren garaiotan, postontzian Kalaputxi jasotzean? Gaztetxeko barra ertzean eman ditut muxu goxoenak, eta izan ditut elkarrizketarik politenak ere. Eztabaidatu dut asanbladetan, dantzatu kontzertuetan, bazkaldu Santa Eskeetan. Normaltzat ematen ditugu sarri, bukatzean baino faltan botako ez ditugun kontu horiek guztiak.

Esku artean duzun aldizkari honek lan, buruhauste, mimo eta denbora asko eskatu dizkie boluntario askori, eta jende askok buruhauste, mimo eta denbora asko eskaini dizkio proiektu honi. Irakurle gisa, eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Faltan botatzen dugunean ohartuko gara zer altxor eder eskaini diguzuen gaur arte. Ez dakigu aurrerantzean Kalaputxik zer metamorfosi izango duen, edo inork helduko ote dion honaino ekarri gaituen bide eder honi, baina 25 urte hauetan egindakoaz harro egoteko moduan zarete. Bitartean, badirudi bizilagun duen Gaztetxeak eutsiko diola urteurrenak pilatzen jarraitzeari beste urte batzuez. Horixe du urtero urpetzen den plaza batean loratzeak: bizirik mantentzeko, esku asko behar dira.



Argitaratzailea
Karenka Komunikazio Elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku
Tel. 635 748 393
e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus
Webgunea: www.kalaputxi.eus
Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak
Josu Larrañaga, Inhar Mutiozabal
Tirada 2.200 ale
Lege Gordailua SS-787/01
ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI
Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak Mutrikuko Udalaren dirulaguntza jasotzen du:
Mutrikuko Udala

www.lurraldebus.eus
900 300 340

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:
www.kalaputxi.eus/garraioa

NEGUKO ORDUTEGIA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

... MUTRIKU*TIK* .....

DB03 DONOSTIAra
06:45(Unibertsitatetik); 10:20; 13:20; 18:20

DB04 MALLABIAra
07:15, orduro, 20:15; 21:25; 22:15; 22:45 (Ostr. 23:25; 01:15)

DB05 ZUMAIAra
06:20; 09:25; 11:25; 13:25; 16:25; 18:25

DB06 SORALUZEra
08:45; 10:45; 12:45; 14:45; 17:45; 19:45; 21:45

... MUTRIKU*RA* .....

DB03 DONOSTIAtik
08:00; 11:00 14:30 (Unibertsitatetik); 18:00; 20:30

DB04 (MALLABIA) EIBARtik irteteko ordua
06:10; 07:05; orduro; 21:05; 22:15 (lanegun ostr.); 0:00 (ostr.)

DB05 ZUMAIAtik
08:10; 10:10; 12:10; 17:10

DB06 SORALUZEtik
07:40; 09:40; 11:40; 13:40; 16:40;18:40; 20:40

LARUNBAT, IGANDE ETA JAI EGUNAK

... MUTRIKU*TIK* .....

DB03 DONOSTIAra
08:30; 13:00; 17:30; 19:30

DB04 MALLABIAra
07:15, orduro, 20:15; 21:25; 22:15 (Lar.: 23:25, 23:55; 01:55; 03:55; 05:55)

DB05 ZUMAIAra
08:25 (Lr); 10:25; 12:25; 14:25; 16:25; 18:25; 20:25

DB06 SORALUZEra
09:45 (Lr.); 11:45; 13:45; 17:45; 19:45; 21:45

... MUTRIKU*RA* .....

DB03 DONOSTIAtik
10:30; 14:30 17:00; 20:30 (Ig.); 21:00 (Lr.)

DB04 (MALLABIA) EIBARtik irteteko ordua
07:00; orduro; 22:00; 22:15 (Ig.)

DB05 ZUMAIAtik
09:10 (Lr.); 11:10; 13:10; 15:10; 17:10; 19:10; 22:10 (Lr.)

DB06 SORALUZEtik
08:40 (Lr.); 10:40; 12:40; 16:40; 18:40; 20:40

www.euskotren.eus

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
BILBOTIK		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	8:29	22:29
Donostia	7:38	8:38	22:38

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
DonostiaTIK	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO		
astelehenetik ostiralera		
	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		
jai egunak		
A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA		
astelehenetik ostiralera		
	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40
jai egunak		
A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

7 PLAIXAK BIZIRIK. PASABIDE SEGURUA ORAIN!

ZER GERTATU DA?

7plaixetara Saturraran aldetik sartzeko zegoen pasabidea Kostaldeen Zuzendaritza Nagusiak eraitsi du 2026ko irailean, segurua ez zela argudiatuta beste pasabide bat ireki baino lehen, eta harrezkero, bertara heltzeko ez dago ezelako pasabide publikorik.

ZER BALIO DAUKA 7PLAIXAK INGURUAK?

7plaixak izenarekin ezagutzen dugun ingurua flysch beltzean kokatuta dago, babes bereziko eremua eta naturgune garrantzitsua da hainbat ikuspuntutatik:

- Balio geologiko handia dauka
- Naturgune aberatsa bezain hauskorra da
- Itsas ekosistema aberatsa da
- Natur ondare baliotsua, balio historiko eta kultural handikoa

BERTARA IRISTEKO PASABIDEA

1960ko hamarkadan Areilza-Txurruka familiak, inguru horietako hainbat lurren eta etxe biren jabeak, Saturran Zar etxearen aurretik erabiltzen zen bidearen erabilera publikoa murrizteko, labarraren aldetik hormigoizko pasabidea eraiki zuen, hain zuzen, orain eraitsi dutena.

INGURUMENAREN ZAINTZA ETA ZAINTZA EZA

Gaur egun eta aspaldi luze batean, Saturran Zar etxeko ur zikinak hondartza txikira isurtzen dira zuzenean, gainez egiten baitu hondartzan bertan eraikitako putzuak, kutsadura eraginez, bai hondartzan, baita itsasoko uretan ere, bainurako eremuan.

Kalak ez dauka ezelako garbiketa zerbitzu publikorik, eta batez ere udan, hainbat erabiltzailek mantentzen dute garbi, itsasoak ekarritako zikinak jaso eta Saturrararaneko hondartzako sarreran dauden edukiontzietara eramanez.

7PLAIXETAKO ERABILTZAILEAK

Saturrararanen alboko hondartza txikiak erabiltzaile ugari ditu, bai bainu zaleak, baita natur zaleak ere, itsasoko eta eguzki bainuak hartzeko, Saturraran-Mutriku arteko flysch beltzaren ibilbidea egiteko, paseatzeko eta inguruaz gozatzeko…

7PLAIXETARA IRISTEKO SARRERAK PRIBATIZATUTA

Ezelako alternatiba eraiki aurretik sarbide hau ixteak 7plaixetako ingurua sarbide publikorik gabe uztea ekarri du, eta urte askotan egon diren hiru sarrerak de facto esku pribatuetan geratu dira: Idurre, Haitz Alde eta Saturraran Zar. Indarrean dagoen Kosta Legeak dioenez, kostaldea eta hondartzak ezin dira pribatuak izan, itsasorako sarbideak publikoa eta doakoa behar du izan, bai herritarrentzat, baita salbamendu zerbitzuentzat ere, eta Mutrikutik Saturraranera doan itsaslabarreko hiru sarrerak itxita, hori ez da betetzen.

PASABIDE BERRIA IZAN ARTEKO ARRISKUAK

Kostaldeen Zuzendaritza Nagusia behin betiko konponbide bat bilatzen ari da, baina izapidetze-epeen arabera, urtebete baino gehiago itxaron beharko da pasabide berria izateko. Gaur egungo errealitatea kezkagarria da: alternatibarik ez dagoenez, erabiltzaileak dagoeneko arriskuak hartzen ari dira, mendian edo haitzetan zehar hondartzara iritsi nahian. Eta berandu gabe, urrian, lehen istripua gertatu da, pertsona bat erori eta saihetsetan kolpea hartuta dago.

ZER ESKATZEN DUGU

Pertsonen segurtasuna lehenesten duten neurriak babesten ditugun neurri berean, 7plaixetako ingurura heltzeko sarbidea beharrezkoa da, kontuan izanda inguru hauskorra dela eta masa-turismorako bidea ez dela izan behar.

7plaixetako hiru sarbideak irekitzea beharrezkoa da, itsas segurtasunagatik eta ingurua publikoki erabili ahal izateko. Ezezko biribila ematen diogu hondartzak pribatizatzeari. Onura publikoaren defentsan dauden legeak bete behar dira.

- Kostaldeen Zuzendaritza Nagusiari: Berehalako irtenbidea eskatzen diogu.
- Mutrikuko Udalari eta ardura izan dezaketen erakundeei: Pasabidea irekitzen laguntzeko euren esku dagoena egin dezatela eskatzen diegu.
- Jabetza duen familiari: Bidea irekitzeko erraztasunak emateko eskatzen diogu.
- Herritarrei: Pasabide publikoa ireki dadila eskatzeko sinadura bilketan parte hartzea.

Berehalako irtenbidea emateko garaia da. 7plaixak bizirik, pasabide segurua orain!

7plaixak bizirik Plataforma, Mutrikuko Natur Taldea eta Eguzki Talde Ekologista

KAIXO LAGUNOK, BIHOTZEZ

Urte askoan Mutrikuko Goizeko Izarra ikastolako irakasle eta zuekin lan egin dudana, zuengana etorri eta mesede bat eskatu nahi dizuet, zenbat eta zenbat jai, ospakizun, jaialdi, irteera… antolatu ditugun gogoratuta. Ene….

Etxean gordeta garai haietako oroitzapenik badaukazue…, Mutrikuko liburutegira eraman ditzakezue? Kaxa bat prestatu dugu zuek ekarritakoa jasotzeko. Emailez ere bidali dezakezue lurdesodri1@gmail.com korreora idatzita.

Abendura bitartean jasotzen dudanarekin bildumatxo bat egin nahiko nuke, gustatuko litzaidake. Nere bizitzaren zati haundi eta pozgarria izan zarete, eta gustura jasoko nituzke oroitzapen horiek.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik, zuen parte hartzeagatik.

Ongi izan, eta pozik bizi

Lurdes Odriozola

1970 URTEAN JAIOTAKOEN KINTADA

Kaixo lagunok!

1970 urtean jaiotako mutrikuarrok, urte berri batez, lagun arteko bazkaria egingo dugu gaztetako kontuak eta gaurkoak errepasatzera:

Bazkaria abenduaren 19an izango da, 15:00etan LEIZE jatetxean, lehengo Kai. Bazkaldu aurretik, 13:00etan Ametza tabernan elkartuko gara poteo alai bat egiteko.

Herritarrok eta kanpotik etorriko diren guztiek egun zoragarri bat elkarrekin pasatzeko aukera izango dugu.

Izena emateko, Wasapeko kintadako taldean idatzi ahal duzue, edo 646655650 zenbakira deitu. Apuntatzeko azken eguna, abenduaren 9a.

Animatu eta etorri!!

1970eko kintadakoak

Kalaputxi aldizkariak irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz aldizkaria@kalaputxi.eus helbidera. Aldizkariak ez du zertan bere egin idatzien edukia.

HAITZULOETAKO LEHOIA AURKITU DA ARNON

2023ko martxoan, Burumendi Espeleologia Taldeko kideek Ormola Bide Ondoko Leizean galeria berri bat aurkitu zuten. Esplorazioan zehar, haitzulo-lehoi (Panthera spelaea) baten hezurdura aurkitu zuten, partzialki osorik. Ormolako aztarnategiko aztarnak Iberiar penintsulan aurkitutako Panthera spelaea subheldu baten hezurdua oso bakarra da, ziurrenik 2 eta 3 urte bitarteko ar bat.



Burumendi Espeleologia Taldeko kideak Mendaroko eta Mutrikuko alkateekin eta Foru Aldundiko ordezkariekin, lehoiaren hezurduraren aurkezpenean

Ustekabeko aurkikuntza

2023ko martxoan, Burumendi Espeleologia Taldeko (BET) kideek kobazulo-galeria berri bat aurkitu zuten Ormola Bide Ondoko Leizean. Esplorazioan zehar, haitzuloetako-lehoi baten (Panthera spelaea) hezurdura aurkitu zuten, anatomikoki partzialki lotuta, eta zenbait aztarna mugituta zituena. BETek aurkikuntza honen berri eman zien Gipuzkoako Foru Aldundiari, Aranzadi Zientzia Elkarteari eta Euskal Herriko Unibertsitateari, eta Jexux Tapiari (arkeologoa) eta Asier Gómezi (paleontologoa) sarbidea erraztu zien, aurkikuntzaren garrantzia eta balio zientifikoa bertan egiaztatu ahal izan baitzuten.

Hezurdura atera aurretik, 2023ko maiatzean, Euken Alonsok lehoi-aztarnen fotogrametria egin zuen haien kokapen espaziala dokumentatzeko. Lehoi-hezurduraren indusketa eta erauzketa 2023ko abenduaren 2tik 2024ko martxoaren 10era egin ziren, A. Gómezek (Euskal Herriko Unibertsitatea eta Aranzadi Elkartea) zuzenduta. Eskeletoa bi metro bider metro bat baino gehiagoko eremu irregular batean zehar zabalduta zegoen, galeria estu eta aldapatsu batean, non erauzketa lana konplikatua zen. Horregatik, talde lana ezinbestekoa izan zen aztarnak dokumentatu eta ateratzeko.

Haitzuloetako lehoiak

Haitzuloetako lehoiak Eurasiako ekosistemetan bizi izan ziren ia milioi bat urtez, duela 14.000 eta 12.000 urte bitartean desagertu ziren arte. Garai horretan, animalia hauek hominido-espezie ezberdinekin ekosistemak partekatzen zituzten eta gure historiaurreko arbasoek haitzuloetako hormetako margolan eta grabatuetan irudikatu zituzten, baita beste dekorazio-objektu batzuetan ere. Harrapari handi hauek ekosistemaren elika-sarearen goialdean zeuden eta, beraz, nahiko animalia urriak ziren ingurunean. Honek ere haien erregistro fosilaren eskasia eragiten du, eta haien aurkikuntzak oso eskas bihurtzen dira, batez ere beste haragijale talde batzuekin alderatuta (adibidez, haitzuloetako hartzak edo hienak) edo belarjaleekin (adibidez, zaldiak, bobido handiak, zerbidoak, etab.). Izena izan arren, ez ziren kobazuloetan bizi, nahiz eta haien aztarna fosil gehienak ingurune karstikoetan aurkitu diren.







Burumendi Espeleologia Taldeko kideak kobazuloan, lehoiaren hezurduraren ondoan

Hezurdura honen kontserbazioa desberdina da hezurraren arabera, hezur batzuk osorik eta egoera onean baitaude, eta beste batzuk, berriz, bloke eroriek hautsi dituzte, pitzatuta, zatikatuta eta/edo espeleotemoek partzialki edo erabat estalita daude. Ondorioz, fosil batzuk ateratzea nahiko erraza izan zen, ia solte edo gainazalean baitzeuden. Hala ere, beste kasu batzuetan, metodo mekanikoak erabili behar izan ziren. Kasu batzuetan, batez ere zerbikaleko ornoen eta burezurraren kasuan, hezurrak babestu eta sendotu egin ziren blokean atera aurretik.

Hezurduraren zaharberritzea eta kontserbazio lanak

Aurkikuntzaren aparteko izaera izan arren, orokorrean, hezur askoren kontserbazio-egoera erdipurdikoa edo txarra zen, hezurrek kobaren zoruaren azal irregularrean milaka urtez jasandako zatiketa, disgregazioa edo/eta deformazioak nabariak baitziren. Horrez gain, hainbat piezek gainazaleko konkrezio gogorrak zituzten. Hezurduraren hainbat piezen zaharberritze eta kontserbazio lanak egin dira Gordailuko Arkeologia eta Paleontologia zaharberritze tailerrean hezurren egonkortasuna bermatzeko. Horretarako kontserbazio-irizpide nagusiak jarraitu dira, hala nola esku-hartze minimoa, materialaren errespetua, eta itzulgarritasuna. Tratamendua eman baino lehen, paleontologia ikerketa-taldearekin baloratu da elementu bakoitza, ikerketaren interesaren aldetik zein kontserbazioaren aldetik. Izan ere, zaharberritze prozesuen helburu nagusia ez da soilik fosilen kontserbazioa, baizik eta aleen irakurgarritasuna era irisgarritasun zientifikoa hobetzea.

Hezurdura paregabe bat

Aztertutako fosilen tamaina orokorra aztertuta, ale hau Pleistozeno Berantiarreko Panthera spelaea spelaea azpiespeziari dagokiola iradokitzen da. Hori bat dator erradiokarbono bidezko datazioarekin, animalia hau duela 31.500 urte inguru hil zela adierazten baitu. Azpiespezie hau Pleistozeno Ertaineko formak baino txikiagoa zen. Letaginen zabalerak arra zela iradokitzen du, eta epifisien fusio mailak 2 eta 3 urte arteko heriotza-adina kalkulatzea ahalbidetu du, gaur egungo lehoi arrek heldutasun sexuala lortzen duten eta taldetik kanporatzen hasten diren adina. Ormolako hezurdura Iberiar Penintsulan aurkitutako lehen heldugabeko eskeleto osoa litzateke. Lehoi honi buruzko ikerketa ez da bukatu. Bildutako datu metriko guztiak Europako haitzuloetako lehoien erregistro fosilarekin alderatuko dira. Gainera, espezie honen hazkuntza-eredua hobeto ulertzeko aukera emango duten datuak bildu dira. Azkenik, banako honen DNA analisietarako laginak ere hartu dira, Vienako Unibertsitateko talde batekin lankidetzan.

Esku-hartzea, zaharberritzea eta ikerketa lanak Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu ditu batez ere, eta EHUko ikerketa taldeen deialdiak lagundu ditu (IT1485-22 eta IT1874-26 taldeak). Indusketa eta ikerketa lanak EHUk eta Aranzadi Zientzia Elkarteak zuzentzen dituzte. Fosil hauen azterketa Alvar Manjónen Pirinio Mendebaldeko Pleistozenoko felino handiei buruzko doktorego tesiaren parte da, A. Gómezek, Mónica Villalbak eta José Ángel Peñak zuzenduta. Arnon aurkitutako lehoiari buruzko hitzaldia eskainiko da Burumendi Espeleologia Taldearen eskutik.





GABA BELTZA

Aurten ere mutrikuarrek, urriaren azken egunean, Arimen Eguna sasoi baten, eta Gaba Beltza azken hamarkadetan ospatu zuten, eta ohikoa den bezala «Talaixako Mamua» erre zuten istorioaren kontakizuna bukatu ondoren.

Berezitasunik izan zen Gaztetxekoen esku izaten den ospakizun eta antolakuntza honetan. Komentutik atera zen lehen aldiz segizioa, dantzariek eta arimek osatuta akordeoi eta txistuaren doinuak lagunduz; Zubixa Plazan gehitu zitzaion «Talaixako Mamua», eta dantzatuz egin zuten ibilbidea, jendez beteta zegoen Goiko Plazaraino.

Ohiko «Axuri Beltza» dantzari ekin zioten dantzariek txistulariek markatutako erritmoari jarraituz, eta ondoren etorri zen istorioaren kontakizun luzea. Baina aurtengoan, dena batera irakurri ordez, zatika egin zen, piratak, arimak eta dantzariak, zati bakoitza euren dantzarekin musikaz lagunduta antzezten zuten bitartean, ikuskizunari beste maila bat emanez.

Beti bezala, «Talaixako Mamua»-k sutan bukatu zuen. Esan behar, ehun lagunetik gorak hartu zutela parte emanaldian. Txalotzekoa egindako esfortzua eta eskainitako ikuskizuna.





HERRI KROSSEAN IRABAZLE

Urriaren 31n, Gaba Beltzaren egunean, Mutrikuko Herri Krossaren XXIII. edizioa antolatu zuen Talaixa Triatloi Elkarteak Udalarekin batera. Urteroko hitzorduan, 60 korrikalari abiatu eta helmugaratu ziren, herrikoak eta inguruko herrietakoak, 45 gizonezko eta 15 emakumezko.

Debara joan etorrian, Ibon Badiola Lersundi ondarrutarra izan zen helmugara lehena iristen 32 minutu eta 27 segunduko denboran. Lehenengo emakumea, berriz, Nahia Ibarzabal Gisasola markinarra, 43 minutu eta 26 segunduko denboran. Mutrikuarrei dagokienez, Asier Arrieta Badiola izan zen lehen gizonezkoa 37:34 denborarekin, eta Mertxe Mendibe Lazaro, berriz, lehen emakumea 50:59 denborarekin. Bi korrikalari mutrikuarrek Alkatearen eta kirol zinegotziaren eskutik jaso zituzten garaikurrak.

Eutsi horri, neska-mutilak, zuentzako txapelak iritsiko dira eta datozen urteetan!



EUSKAL HERRIKO TXAPELDUN

Urriaren 11n Tarragonako Calafat zirkuituan jokatu zen Kataluniako txapelketan, Rafa Urangak 2026ko Euskal Herriko moto klasikoen txapelketa bereganatu du. Lasterketaren sailkapenean seigarren postuan bukatu zuen, bere kategorian hirugarren, eta Euskal Herriko lehenengo. Lehen postu honek emandako puntuei esker irabazi du Euskal Herriko txapelketa. Ondo bukatu du, beraz, aurtengo txapelketa Rafak, nahiz eta ez zen oso ondo hasi lehengo lasteketan izandako erorketa baten ondorioz. Eskerrak eman nahi dizkio lagundu dioten guztiei: KIDE S. COOP, ZUBIARAM TABERNA, SILENT-BIKE, ESKUONAK, DZR, AUTO-IRAETA, BEHIARTE. Eta bere emazte Nagoreri. Zorionak Rafa!



MUTRIKUKO TANATORIOA
Iriagirre z/g
Albia
EHORZKETA ZERBITZUAK
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

«HIRU OLATU» FILMAREN GRABAKETA MUTRIKUN



Urriko pare bat astean entretenimendua izan dugu herritarrok moila inguruan. Ikusi dugu nola atontzen jardun zuten Intxirrixa zein inguruko moila eta itsasoa, era ezberdinetako txalupa eta itsas-tresnekin, baita pintaketa eta tramankulu ezberdinez, ondorengo egunetan grabatzen aritzeko.

Mutrikuar batzuk aukeratu zituzten papertxo batzuk antzezteko, eta nahi izan zuten guztiek eduki zuten aukera egun batean estra lanak egiteko. Grabaketak Kofradia Zaharraren azpian, kofradiako zein aurreko moiletan, Intxirrian, eta hondartzara jaisteko arranpan egin zituzten, baita Hondarbeltzen ere.

Gaia, dirudi, guk Rafael Castellano idazleari irakurri diogun «Sutondoan» elezaharrean bildumako kontakizun batean oinarrituta dagoela Debako bokalean. Lamia bilakatzen diren herriko bi emakume, gorrotoa, akelarrea, bi gazte... Lamietako batek hiru olatu erraldoi sortu: esnez, malkoz eta, azkena, bera izango zena, odolez. Gazteetako batek arpoia sartuko dio eta itsasoa bare eta gorri ikusiko da inguruko herrietan. Eta...

ODOLA EMATEN JARRAITUKO DA 2027AN



2027 urteko odol-emateak otsailak 19 · maiatzak 14, abuztuak 6 · azaroak 19

Odol Emaileen Elkarteak gizarte osoarentzat lan bikaina egiten dihardu aurreko mendetik hona. Aurretik ibili zirenei erreleboa hartu zien Regina Lekubek, eta azken hogeita sei urteetan, hainbat laguntzaileren laguntzarekin, Mutrikun odola ematea posible egin du.

Hogeita sei urte ondoren, Reginak atsedena hartuko du, eta utzi egingo du odola emateko antolakuntzaren ardura, abenduaren 19ko saioaren ondoren. Aurrerantzean, erreleboa emango diotenak arduratuko dira urtean zeharreko ateraldiak antolatzeaz.

Orain artean, urtean 6 odol-ateratze saio egiten ziren, bi hilean behin. 2027 urtean 4 odol ateratze saio izango dira, bi gutxiago, eta orain arte bezala anbulatorioan izango dira, ostiraletan, arratsaldeko 17:00etatik 20:30ak arte. Urteko helburua ere jarrita dute: 200 odol-ateratze.

Egun hauetan izango dira odol-ateratzeak: otsailak 19, maiatzak 14, abuztuak 6 eta azaroak 19.

APAIN, 15 URTE LOKAL BERRIAN APAINTZEN



Hainbat urtetan Beheko plazako lokalean zerbitzua ematen jardun ondoren, eleiz atzeko kokapen berrian 15 urte betetzen zituela eta, bezero eta lagunei egin zien gonbita Apainek mokadu batzuk jatera ardo goxo edo beste edariren batekin lagunduta.

Ospakizuna urriaren 23an arratsaldean izan zen zentro aurrean ezarri zuten karpa batek estalitako mahai luze baten inguruan. Hitz-aspertu atsegin eta ugariak sortu ziren giro politean.

Jarraitu dezazuela, aldi luzean, zuen bezeroei, minak kenduz, atsegina ematen eta kanpo edertasunean laguntzen.

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)



Camping
Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

ONGIZATE EMOZIONALERAKO HELDULEKU BERRIA

Sexualitateari buruzko aholkularitza moduan abiatu zen ***Helduleku***. Aurten, aholkularitzaren eskaintza zabaldu egin da eta, aurrerantzean, norbere emozioak, harremanak eta gorputzarekin lotutako egoerak modu seguruan eta lasai landu ahal izango dira, norbere burua hobeto ezagutzeko, entzuna sentitzeko eta ongizate-bide berriak topatzeko. Zerbitzuaren helburu nagusia, orientazioa eta laguntza profesionalen eskutik eskaintzea.

Emozioak eta autoestimua, harremanak eta bikote gatazkak, familia eta gurasotasuna, sexualitatea eta identitatea, nerabezaroa eta gorputzaren aldaketak, desira, intimitatea eta elkarbizitza, zalantzak eta minak, edota sexu disfuntzioak bezalako gaiak izan daitezke aholkularitzan landu daitezkeenak.

Aurrez hitzordua eskatuta, asteazkenetan 17:00-19:00 ordutegian emango da aholkularitza, aurrez aurreko saioetan nahiz telefono bidezko saioetan. Orain artean bezala, Konde kaleko estanko zaharrean, Debegesarena izandako lokalean, ikasketa gelak dauden lokalean izango da aurrez aurreko arreta.


Herritar guztiei zuzenduta dagoen zerbitzu hau erabat konfidentziala eta doakoa dela gogorarazi behar da.

Harremanetarako: **943 115 453** edo **helduleku@gmail.com**

HelduLeku
MUTRIKUKO ONGIZATERAKO LEKUA

ZENBAT ERRO DITU TXIBIAK?

Goizeko moila aldeko pasealdian geldialditxo bat topo egindako hiruzpalau arrantza giroko pertsonarekin solasean jarduteko. Eta, jakina, kresal usaindunen artean, ez da zaila txibixa-kontuak aipatzea: zenbat, tamaina, begi handia… inoiz ez arrantzatutako kala. Baina, euren artean, bat kresal usainik gabea, ezjakina, eta non okurritu zaion galdetzea ea zenbat erro dituen txibixak. Ikustekoak ziren jarritako aurpegiak, milaka txibixa esku artean izan dutenen artean. Inork ez zekien zehatz zenbat.



Gauza arrunt bezala hartu zuten, baina ezjakinak, hurrengo talde batekin topo egitean, galdera bera, eta erantzun ziurrik ez haiek ere. Tematu zen gizona, eta moila zaharreko puntaraino topo egindako guztiei zuzendu zien galdera, eta, beti berdin, inork erantzun egokirik ez. Moila muturrean, moilan hazi eta hezitako emakumea kainaberarekin arrantzan. Hari ere galdera zuzendu, eta hark ere galdera ikurra buruan. Baina, azkarra emakumea, eta laster atera zuen poltsatik telefonoa eta Google-i kontsulta egin: hamar.

Erantzuna jakinik, martxan jarri zen adarra jotzeko makina, eta galde bati galde besteari, tabernan ahotsa altxatuz galderaegin, eta guztiak barrez euren buruari, sekula okurritu ez zitzaielako erroak kontatzea. Hurrengo egunean, denek zuten erantzuna. Etxean ondo kontatuta!

Hala ere, galderarekin jarraitu zuen adar jotzaileak, eta esan behar erantzun jatorrik ere jaso zuela: olagarroa «*oktopodoa*» da, eta txibia «*dekapodoa*» (okto = 8 / deka = 10 / podo = oin).

hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan

klik
MUTRIKUKO ENERGIA KOMUNITATEA

ZINEA


Inisheringo arima galduak

Istorio batzuek ekintza haundiak behar izaten dituzte pelikula bat kontatzeko. Garai garrantzitsuetan, pertsonaia ezagunenak zer eta nola bizi izan ziren erakustea, bertako balioak egun dituguneken parekatu nahian. Baina badaude istorio batzuk, guk ezagutzen dugun mundua aldatuko ez luketenak.

Film honek Irlandako irla txiki batean bizi diren bi lagun aurkeztuko dizkigu. Egun batean, horietako batek, beste lagunak eskaintzen dion interakzio intelektual gabeziaz oharturik, bere bidean bakarrik jarraitzea aukeratuko du. Bere lagunak, ordea, ez du ulertuko nola jarraitu ahal izango duen bide horretan bera gabe.

Pertsonen barne mundua aldatzeko ez da asko behar. Ekintza bat, esaldi bat, begirada bat... arrazoi sinple bat nahikoa da edonoiz bizi izan den batek zer bizi izan duen erakusteko. Eta, sinpletasun horren baitan, edozein egitate handik kontatuko ez lizkigukeen sekretuak ezagutu ahal izango ditugu.

«Baina atzo gustoko ninduzun...»





FITXA TEKNIKOA

Izenburua: The Banshees of Inisherin
Urtea: 2022
Zuzendaritza: Martin McDonagh
Gidoia: Martin McDonagh
Argazkia: Ben Davis
Musika: Carter Burwell
Aktoreak: Colin Farrell, Brendan Gleeson, Kerry Condon, Barry Keoghan, (...)
Iraupena: 1 h 54 min.

LITERATURA

Barazkijalea

Han Kang



Han Kangen Barazkijalea eleberriak zoramenaren mugetan murgiltzen gaitu, Yeonghye protagonistaren eta haren senitartekoen bizipenen bidez. Elkarri lotutako hiru istorioen bitartez, kontakizun konplexu eta sakona eraikitzen du idazleak. Giza gorputzaren izaeratik haratago doa istorioa, animalien eta landareen munduarekin alderaketak eginez, gizaki izateari utzi eta norberaren gorputza Lurrari emateko nahia planteatzen du.

Ihes egiteko nahi horixe kokatzen da istorioaren erdigunean, Yeonghyek askatasuna desiratzen du. Bere bizia indarkeriaz josia egon denez, haren aurka egiteko hautua egiten du haragiari uko egitean. Era berean, bere ahizparen errealitatea ere islatzen du Yeonghyren jarrerak; emakumeei ezarritako gizarte ereduetatik alde egin nahi duelako, askatasun sentipen berberaren atzetik dabil Inhye. Beren buruen gaineko kontrola berreskuratzeko bidean gertatzen diren egoera deseroso, mingarri zein iraultzaileak azaltzen dira liburuan zehar. Askatasun nahiak askotan zoramen itxura hartzen du gizartearen begietan, eta horixe gertatzen zaio protagonistari. Bere nahi bakarra zuhaitz bihurtzea da, baina oztopoen artean ere aurkituko du hura sostengatzen duen sustraia.

Eleberriak gogoeta egitera garamatza, zer gertatzen den geure borondatez zentzutasunetik aldentzea erabakitzen dugunean, edo gure erabakiak gutaz zer dioten pentsatzera. Istorio deserosoa da, askatasunari eta identitateari buruzko galdera ugari uzten dituena.

Mutriku Arraun Elkartea

1981etik gaur arteko ibilbideaz jardun dugu Mutrikuko Arraun Elkarteko zuzendaritzako partaideekin, euren kirol zein azpiegitura eta ekonomian arloetako gorabeherez.

Azpimarratu nahi genuke Elkartean sumatu dugun talde giroa. Elkarrekin heltzen diete eginkizun guztiei, bakoitzaren ahalak taldera bideratuz, berdin presidente, bokal, entrenatzaile edo laguntzaile izan. Eta giro hori arraunlariei ere transmititzen diete, «ni» «gu» bilakatuz.

Zerbait kontatu dezakezue zuen aurretik arraun munduan jardun zuten mutrikuarrei buruz?

Ezer gutxi. Mende bat aurreragoko demak entzunak ditugu, alboko herriekin egindakoak, baina lauso gelditzen zaizkigu. Hurbilagoko kontuetan jakin dugu Nikanor «Mendixa» izan zela bultzatzaile horietako bat; egurrezko trainerurik ere iritsi zela herrira, orduko «Centro de atracción y turismo» tarteko; argazkirik ere ikusi izan dugu batel eta trainerilletan lehiatzen, baina hortik aurrera gutxi esan dezakegu: ume ginen.

Noiz lotu zineten zuek arraunari?

Ni —dio Lorenek— debarrekin arraunean nintzelarik, moila inguruko gazteen artean arraunean nor gehiagoko giroa sortua zen, eta San Piñastei egunean neurtu nahi zuten indarrak; baina, jakina, orduan erabiltzen ziren potinekin alde handia zegoenez, debarrei eskatu nizkien bi batel, eta erremolkean ekarri genituen. Horixe izan zen sua piztu zuen txinparta.

Inguruko herrietan arraun elkarteak sortzen ari ziren garai hartan eta... zergatik ez Mutrikun? Galderari erantzunez bildu zen elkartea sortuko zuen taldea. Gazteak ginen orduan, eta administrazio gaietan ezjakinak ginenez, Luziano Itsaso, lehenengo lehendakaria izango zena, arduratu zen tramite administratiboak egiten federakuntzarekin harremanetan. Hala sortu zen «Mutrikuko Arraun Elkartea» 1981 urtean, inolako azpiegiturarik gabe, bilerak egiteko «Aizabia Elkartea» kokaleku harturik.

Zeintzuk izan ziren lehen pausuak?

Arraunean egiteko txalupa eta arraunak behar genituen. Ehun bat mila pezeta balio zuen batelak, eta ohikoa ziren zozketak egiteari ekin genion. Lehenengoa, ez zait ahaztuko —dio Juan Luisek— Joxe Mari «Albaro»k oparitutako Mutrikuren aireko irudi baten kuadro bat izan zen zozketan jarri genuena, hortik aurrerakoak jada ez naiz gogoratzen.

Hurrengo urratsa, udalak herriko taldeentzat Zabielen prestatu zuen disziplina anitzeko lokala izan zen. Txandaka administratzen genituen bilera egun eta orduak, eta armario bat genuen guretzat —ordurako pauso handia—. Ondoren, modu berean erosi genuen bigarren batela, eta aurrera!

1981 urtean hasi ginen lehiaketetan parte hartzen bi batel haiekin kadete eta gazte mailetan. 1982an ekarri genuen lehenengo bandera, baita Espainiako txapelketan parte hartu ere A Coruñan. Autobusak antolatzen hasi behar izan genuen, atzetik geneuzkan zaleak lehiaketa lekuetara garraiatzeko.

Laster hasi zineten emaitzak lortzen...

Bai. Infantil mailan ere hasiberritan jaso zituzten banderak eta dominak. Arku-gain Elkartean daude pila bat zintzilikatuta. Aipatzekoa da, baita ere, moila inguruko neskek sasoi inguru horretan heldu ziotela lehen aldiz arraunari, eta nabarmendu zirela. Ez gara gogoratzen, ordea, nondik lortzen genuen dirua, zeren orduan ez baitzen jasotzen laguntzarik udaletik. Nahiz eta bazkide piloa genuen, oso kuota txikia izan da beti, baita gaur egun ere. Ziur zozketekin jarraituko genuela, zeren garraiorako kamioiak erabiltzetik, Elgoibarren egindako atoia edo erremolkea erostera ere iritsi ginen —gerokoak geuk egin ditugu—.

Aparraldi guztiek izaten dute barealdia. Arraunean halakorik gertatu zen?

Bizitzaren legea da. Ez zen une batetik bestera eten, baina esango genuke laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran jaitsiera nabaria izan zela, poliki-poliki, hutsune sakona gertatu arte: tostak utzi eta futbol zelaira batzuk eta txirrinduari heldu zioten beste zenbaitek. Bost bat urtetan ez zen fitxarik egin.

2000. urtean, urtetxo batzuk pasatuta, trainerilletan puntan ibiliak ziren gazteak, futbola eta txirrindua alboratu, eta, beroaldiak jota, guregana jo zuten traineruari heltzeko gogoa zutela esanez. Orduan, jakina, guk trainerurik ez, eta Ondarroan hasi ginen entrenatzen eurek utzitako traineru batekin, baita lehiatzen hasi ere «Antiguako Ama»



Mutriku Arraun Taldeko neskak, 1990 hamarkada hasieran:
Nekane Talledo, Eva Agirrebengoa, Itziar Galdos, Mari Jose Agirrebengoa;
Ane Miren Andres, Felitxu Elezgarai, Alaitz Elezgarai;
Arantzazu Garagarza, Iratze Garagarza, Mirari Otaño eta Goizane Barrenetxea



1985 inguruan, trainerilletan lortutako garaikurrekin.
Tente: Juan Luis Zumalabe, Iñaki San Sebastian, Fran Bedialauneta, Jose Manuel Hermo, Jaxinto Agirrebengoa, Luxiano Itxaso, Juan de Dios Arreitunandia; kukulumutxu: Joakin Martinez, Xabier Landa «Perras», Luis Carlos Rodriguez, Loren Elezgarai «Txaparro», Inazio Bedialauneta, Inazio Bedialauneta «Papardo», Josemi Bedialauneta

traineruarekin mutrikuarrez eta ondarroar batzuekin eskifaia osatuz.

Nola jarraitu zuen bigarren ibilbide honek?

Ilusio handiarekin. Trainerilla eta traineruarekin lehiatzen genuen 2001 eta 2002. urte horietan, soilik gizonezkoak. Gipuzkoarrak izanik, gonbita genuen Donostiako Kontxan klasifikazio txandan aritzeko. Bertan arraun egite hutsa lorpen bat izan zen: urteko saria.

Bi urte horietan aritu ondoren, berriro ere hutsunea etorri zen. Susperraldi berri bat bizi izan genuen 2011 eta 2012 urteetan bateletan lehiatuz eta Gipuzkoako Liga Txapelketa irabazita.

Urte bi horietan lehiatu ondoren, hutsune berri bat. Arraunlarien fitxak murriztu ziren, eta soilik batel eta trainerilletan lehiatzeko gai izan ginen tostetan ondarroarrak ere jarrita. Ondarroako traineruan mutrikuarrik ere bazen eskifaia osatzen. Horrela, 2017 urtera arte. Urte hartan, berriro lotu zen jendea tostari, eta hondarrabiarrek utzitako traineruan aritu izan ginen.

Ahaztu ezina, era bitxian, 18 traineruren artean Donostian irabazi genuen lehen bandera: lehenengo txandan, errestokoak izanik, erlojuaren kontra jokatu eta buruan atera ginen; ontzia jada lurreratuta genuenean, non ohartzen diguten banderaren jabe ginela. Itsasoaren egoera okertzean, denbora okerragoak egin zituzten hurrengo txandetan, eta berriro trainerua uretaratu eta bandera jasotzera joan behar izan genuen. Hurrengo urtean, 2018an, traineru berria erosi genuen. Esan, ordurako neskak ere parte hartzen ari zirela bateletan.

Susperraldi berria?

Bai. Orduan babesleen izenak agertzen ari ziren gure txalupetan, eta aukera berriak ikusten hasi ginen, material berria eta oinarrizko lanabesak erosten joateko, bai ontzi bai gimnasiorako. 2023ra arte trainerua lehiatzen ibili zen, egia esan, lekeitiar arraunlarien laguntzarekin.

Hala ere, olatu berria nesken partaidetzarekin etorri zaigu azken urteetan. Egun, hirurogeitik gora dira arraunari heldu dioten neskak. Puntako emaitzak ateratzen ari dira Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan, eta gogor lehiatzen Espainiakoan.

Bestalde, iaz uretaratu zuten berriro trainerua mutilek, futboletik datorren jende helduarekin, eta Kontxan lehen aldiz bogatu da, traineruaren eskifaia osoa mutrikuarrez osatuta.

Eta azpiegiturei helduta, nola ikusten duzue zuen egoera?

Hasieratik ohitu gara gauza gutxirekin mugitzen, eta zerbait gehiago ikustean aseturik bezala sentitzen gara; baina jabetzen gara, beste klubekin konparatuz, urruti gaudela. Udalak utzitako bulego txukuna dugu Kofradia Zaharreko lehenengo solairuan, tresneria minimoarekin, baina beste behar handiagoak ditugunez...

Udalak utzia da baita moilan dugun lokala ere, Txirlatxo taberna ondoan, biltegi, gimnasio eta tailer beharrak betetzen dituena. Bertan gordetzen ditugu ontziak —trainerua Mijoako industrialdean gordetzen dugu leku faltagatik, eta handik Intxirriraino garraiatu behar izaten dugu entrenamendu bakoitzerako–.

Gimnasioa erabiltzerako orduan, txikia bera, eta indarra lantzeko tramankulu batekin soilik, ontziak mugitu behar izaten ditugu espazioa libratzeko. Hamaika ergometro ditugu gimnasio gainean eraikitako solairuartekoan. Jakina, tramankulu guztiak bigarren eskukoak dira, edo herriko kiroldegitik erretiratu direnak.

Baztertxo bat erabiltzen dugu tailer bezala, mekanizatu, soldatu edo behar diren lanak egiteko.

Dutxa eta aldagelak aurten berritu eta moldatuak izan dira Kofradia Zaharreko behe solairuan. Beti ere txikiak daukagun jende kopuruarentzat.

Zeren beharra ikusten duzue?

Lokalaren espazio kontua nabaria da; baina, beharrei begiratuz, gure joko zelaia ez da laua. Itsasoak bere gora beherak izaten ditu, eta, mugitu edo haserretzen denean, ez daukagu portutik kanpora irtetzerik, beraz, egun askotan ezin dugu uretan entrenatu. Putzu bat, beste klub askok duten bezala, entrenatzeko zein arraunean ikasteko, gaur egungo ametsa da guretzat, baina heldu diezaiogun aurrean dugunari eta goazen beharrei poliki-poliki erantzuten.

Medikurik zein nutrizionistarik ez izatea beste eragozpen bat da, batik bat, haur eta nerabeekin ari garenean. Gure jakituriak ematen digun mailan aritzen gara, kontu handiz, esfortzuak eragiteko orduan.

Eta nola doa zuen ekonomia?

Oinarrizko sarrerak bazkideen kuotak (650 inguru) eta udalaren laguntza ditugu. Babesleen sarrerek hobera egin dute, eta, beti bezala, hor ari gara ekintza berezi zein ohikoak egiten: atun erre salmentak, kanpoko igerilekua garbitzen, moila berri eta danborraren arteko buiak jartzen, kirol-jertse eta kamisetak saltzen, loteria saltzen eta federaziotik estropadetarako ziabogak jartzeagatik jasotzen ditugun sosekin aurrera egiten.

Gastuak, ostera, gora egiten ari dira, batik bat, bidaietan. Gero eta ontzi gehiago eta bidaia luzeagoak: traineruaren estropada gehienak Kantabrian izan dira, eta Espainiako txapelketa Galizian, adibidez. Arraunlari kopuruak gora egitean, euren arropa beharrak ere gora egiten du...

Eskerrak entrenatzaileen fitxaketak oso dotore ateratzen zaizkigun: musutruk.

FEDEA eta SINESMENA baino askoz gehiago

Fedea kontu pertsonala da, bai, baina fenomeno soziala ere bada. Lehen bezala, orain ere, norberaren sinesmenetik harago, inguruan nagusi den joerak eragin nabarmena du gugan. Nola bizi zuen fedea gure herriak? Eta fede horri lotuta, zeintzuk izan dira gure auzokoen ohiturak? Eta, azkenik, etxean nola hezi gaituzte?

Toki jakin batean jaio gara, eta toki jakin batean bizi. Horrek, bistan denez, gure ikuspegia, balioak eta begirada baldintzatzen ditu. Zer ikusi, hura ikasi. Baina guztiok ez gara berdinak, inork ez baitu agintzen gure buru-bihotzetan. Aukeran ditugu koloreak, jan-edanak, zaletasunak... baita fedea ere.

Mutrikun, ohikoak izan dira kristau-fedea eta horri lotutako errituak eta ospakizunak. Fededunen esanetan, erritu hutsek ez dute balio handirik atzean benetako sinesmenik ez badago. Fede epelagoa dutenek edo batere sinisten ez dutenek, berriz, euren kulturaren parte sentitu ditzakete.

Mutrikun, baziren kristau-kultura hori gogorarazten ziguten soinuak, usainak eta paisaiako elementuak. Gaur egun ere, neurri txikiagoan bada ere, oraindik badira horrelakoak.

Angelusak eta bestelako hotsak

Sasoi batean, angelus-orduak mutrikuarren eguneroko ordutegia antolatzeko erabiltzen ziren. Angelusa eguneko hiru momentutan errezatzen zen: goizean, eguerdian eta iluntzean. Elizako kanpaien bidez iragartzen ziren. Lehendabizikoa, goizeko angelusa, 06:00etan izaten zen; angelus horretan eguna Jainkoari eskaintzen zitzaion. Batzuk ordu horretako mezetara joaten ziren; beste batzuek, berriz, esnatzeko ordutzat zeukaten. Bigarrena eguerdian izaten zen, 12:00etan. Errezatzeko, atseden hartzeko eta bazkaltzeko ordua zen hura. Iluntzeko angelusak, azkenik, egunari amaiera ematen zion, eta Jainkoari egunean zehar bizitakoak eskertzeko momentua izaten zen. Umeak angelusak jo baino lehen etxeratu behar izaten ziren, bestela ilargiak sareak edo kateak bota eta harrapa zitzakeen eta. Ordu horretatik aurrera purgatorioko arimak batera eta bestera ibiltzen zirela ere esaten zitzaien etxeko txikienei.

Pío Baroja idazle ezagunak, sinestuna izan gabe ere, modu bikainean jaso zuen mutrikuarren sinesmen sendoa. 1899. urtean idatzitako kontakizun batean, Mutrikuko portutik abiatutako traineru baten berri ematen digu: «La trainera se encontraba frente a Iciar. (...) De repente, en la agonía de la tarde, sonaron las horas en el reloj de la iglesia de Iciar, y luego las campanadas del Ángelus (...) El patrón se quitó la boina y los demás hicieron lo mismo. La mujer dejó sus agujas, y todos rezaron, graves, sombríos, mirando al mar tranquilo y de redondeadas olas».

Angelus-kanpaiaz gain, hil-kanpaien artean, bazegoen tristura berezia eragiten zuen kanpai-hots bat: aingeru-kanpaia. *Ttan-ttanttan*. Kanpai hori entzundakoan are hilkorrago sentitzen ziren mutrikuarrak. Eta gehienek herritar haren aldeko otoitza egiten zuten.

Bazegoen beste soinu bat zirrara eragiten zuena: hiltzear zegoen herritar baten etxerako bidean, apaizak eta akolitoek jotzen zuten txilina, *tilin-tilin*. Herritarrak belaunikatu eta otoitz egiten zuten. Ez zen euren etxekoa, baina gertukoa bai, herrikidea, anai-arreba.

Eguen eta Bariku Santuan ez zen kanpairik jotzen. Haren ordez egurrezko karraka edo *karraketia* erabiltzen zen. Zarata hark egun seinalatu haiek are bereziago egiten zituen.

Komentuan, tarteka, kanpai-hots tristea aditzen zen, *daun-daun-daun*... Eliztarrak deitzeko zerabilten deia zen. Eguraldi txarra zenean, arrantzaleak onik porturatzeko, edo baten bat osasunez makal zebilenean, hobera egiteko. Jesus Nazarenoaren *Himnoa eta Salbea* esaten zioten elizkizun berezi hari.

Arrantzaleen debozioa

Itsastarrek debozio handia izan diote aspalditik Jesus Nazarenoari. Entzute handikoa zen bere omenez egindako



Santa Katalina Komentua


fede
1 iz. Erlijio baten sinesgaien multzoa.

bederatziurrena, «Emengo Katariñe Deuna lekaimetxadonan datorren larunbatian asiko da Josu Nazaretarren bederatziurrena» (*Euzkadi*, 1919.01.08). Bederatziurren horren berri eman ondoren, hau idatzi zuen Anjel Osoro *Aberri*k *Argia* astekarian (1929.01.20): «ez omen da beñere mutrikuarrik itxasoan galdu abesti ta otoi ori Jesus Gurutzedunari egin izan diotenean».

Kontu ezaguna da gure herrian arrantzaleek *malenak* baino *sanpedruak* eta *kalbaixuak* izan dituztela maiteago, eta ez da kasualitatea. San Pedro jaiak amaitutakoan irteten ziren Asturias aldera, atunetara nahian; eta irailaren hasieran itzultzen ziren, *kalbaixuetarako*. Huts egin gabe Kristo Kalbariokoarengana joaten ziren esker ona agertzera, bai arrantzagatik, bai osasunez etortzeagatik.

Mutrikun geratzen ziren arrantzaleak ez ziren itsasoratzen ez Madalen egunean, ez eta Madalen txiki egunean ere; jaiegunak ziren, *bandera egunak*.

Asturiasa atunetara joandako baporeak Mutrikura etorri izan dira abuztuaren 15ean, Jasokundeko Andre Mariaren eguna herrian pasatzera. 1929. urtean, esaterako, honela jaso zuen prentsak: «Asturias aldetik etorrita Ama Birjiña eguna igarotzera emen egondu dira lurrun ontzi hauek: Maria Milagrosa, Jesus Nazareno, Arantzazuko Ama, Goizeko Izarra, Jesusen Biotza ta Txanbelena num. I». Baporeen izenak ikustea besterik ez dago



Arnoko lehenengo gurutzea

arrantzaleen sinesmen handiaren berri izateko.

Kristo Kalbarioko aipatu dugu, baina Kristo horrek bazuen «sukurtsal» txiki bat portuan bertan: Kristo Tranpako. Itsasorako bidean *aitxiaren* egin eta mun ematen zioten Kristo horri. Hango itsulapikoan batutako limosnarekin Kalbarioko ermitaren argia ordaintzen ei zen.

Hamaika kontu gehiago esan daitezke, baina azken bat azpimarratzekotan portu aldean garrantzi handia izan duten *tolentinoak* aipa ditzakegu. Irailaren 10ean San Nikolas Tolentinoko egunean ogitxo txikiak bedeinkatu, eta herritarren artean partitzen ziren. Itsasoa haserre zegoenean uretara botatzen zituzten, bai arrantzaleek itsasoan, bai eta portuan ere arrantzaleen emazte, ama eta alabek.

Gurutzearen aldeko kontsentsua

Gerra aurreko urteetan Mutrikuko alderdi politiko gehiengehienak kristauak ziren. Errepublikarrak ziren espazio publikoetan ikur kristauak kentzearen aldeko bakarrak. Aste Santuko egun seinalatuetan, esaterako, herrian musika eta dantzaldirik ez zenean, errepublikarren lokaletan baino ez zebiltzan dantzan eta algaraka.

Horiek horrela, Leon XIII.a aita santuak, XIX. gizaldiko azken urteetan, mendirik altuenetan gurutzeak jartzeko gomendioa egin zuenean, Udalak eta elizak bat eginik Arnon gurutzea jartzea erabaki zuten. 1901. urtearen hasieran jarri zuten. Ziriako Andonegik Arnoko gurutzeari idatzitako olerki batetik (1956) hartu dugu ahapaldi hau: «Legorrian bezela itxas zabaletan, / egualdi onarekin baita ekaitzetan. / Paketsu bizi gera gu geren lanetan, / Arno'ko Gurutzaren lege "santuetan"».

Gerra aurreko urte haietan Emakume Abertzale Batzakoak bereziki zaintzen zituzten eliz ospakizunak: euren elkarteko hildakoen omenez, San Inazio egunean, Arantzazuko Ama Birjinaren egunean...

Jeltzaleak izanik (Jaungoikoa eta lege zaharra), aberria eta kristau-fedea eta kristau-balioak bultzatzen zituzten. Hori dela eta Tranpakaleko lokalean umeei dotrina edo kristau-ikasbidea irakastera heldu ziren. Horrez gain, gabonetan, beharrizan handia zuten familientzako otarreak prestatzen zituzten lokal hartan, baita umeen artean partitzeko arropak eta jostailuak ere.

Otoitzak eta giro berezia

Sasoi batean umearen bataio-ospakizunean aita- eta amabesoetakoek kredoa nola errezatzen zuten, halakoa izango zen besoetakoa. Uste hori zegoen. Konparaziotarako, hona hemen Calixto Basterretxea *Itxas-aurre*k nola eman zuen bataio baten berri: «Aurtxo potxolo bat geiago badu Osa'tar Iñazio'ren emazteak, aita ponteko Arruti'tar Jose izandu zan. ¿Kredoa ondo errezatu al zan? Zorionak» (*Argia*, 1930.03.23).

Kredoarri izeneko puntu bat dago Olaztik behera goazela, Ibirira ailegatu aurretik. Kredoa egiteko harri hori bertan dago, bide bazterrean. Puntu horretatik Kalbarioko ermita ikus daiteke. Itxura denez, hildakoren bat zeraman segizioak puntu



Maiatzeko prozesioa

hartan geldialdia egin eta kredoa errezatu ohi zuen.

Jai batzuek gogoratzeko moduko usaina uzten zuten, Gorputz eguneko prozesioak esaterako. Herriko kaleak landarez apainduta egoten ziren: garoak, gurbitza, gorostiak... Gainera, umeek, besoan otarretxoa hartuta, prozesioko *Jaunari* arrosa-hostoak botatzen zizkioten. Astigarribiako prozesioan, berriz, mihilua edo anis-belarra zabaltzen zuten lurrean; han ere arrosa-hostoak botatzen zituzten.

Maiatza Ama Birjinaren hilabetea da, eta lehenengo jaunartzeak egitekoa. *Itxas-aurre*k honela agertu zuen bere asmoa: «ill alai onetan gure Ama maiteari eskeñiko dioguz lorerik ederrenak». (*Argia*, 1931.04.26). Olerkitxoa ere eskaini zion ama zerukoari: «Goazen eramatera loreak ugari / animatikan maite degun Amari».

Askok ez dauzkagu ahazteko domeketako eta jai berezietako usain berezi haiek: intsentsua, kolonia eta garbi usaina... Giro hark prestatu egiten gintuen Jainkoaren eta Ama Birjinaren aurrera agertu eta gure esker ona emateko.

Jaietan, eliz barruko nahiz kanpoko giroak ikaragarri laguntzen zion norberaren fedeari. Esate baterako, malenetan Saturrarango abadegaiak kantatzera etortzen zirenean. Honela iragarri zuten 1921eko malenak: «Ostiralean, Magdalenetan jayak ditugu; eun abeslari edo kantore ta geyago biltzekoak dira elizkizun ederrak egiteko. Apaizgayak ere laguntzera etorriko dira Saturrarandik». 1922ko jaien kronikak, berriz, abeslariak eta prozesioa azpimarratu zituen: «Bezperan Seminarioko Orfeoyak Salve eder bat abestu zuten berak dakiten bezela, 22'an prozesio ikusgarri bat, apaizgayak etorririk».

Hamaika keinu txiki

Amarekin ikasi nuen etxetik irtetean *aitxiaren* egiten. Egun oso-osoa niretzat, Aita, ederra erregalua!

Amona Merzedesekin, berriz, besteen lekuan jartzen ikasi nuen. Oraindik gogoratzen dut bihotz handiko amona, eguraldi euritsu eta hotza zenean, leihotik begira... Kezkatuta kale gorrian lanean ari zirenengatik, etxerik ez zeukaten pertsonengatik. Enpatia ariketa etengabean.



Malen eguneko prozesioa

Normaltzat hartzen genuen etxeko edo ezagunen batek azterketa edo ebakuntza izanez gero, kandelatxoa piztu eta haren alde errezatzea.

Keinu txikiak baina betiko gordetzen direnak bihotzean: Jatorduetan mahaia bedeinkatzea; apaizarekin automobil eta itsasontzi berria bedeinkatzea; etxean zeozer galduz gero, purgatorioko arimei errezatzea; oherakoan eskerrak ematea bizitako egunagatik, jasotako guztiagatik...

Lehengoek trumoia zenean Santa Barbarari errezatzen zioten, eta amets txarrik ez izateko laguntza eskatzen zioten Santa Inesi. Euria eskatzeko edo izurriteak amaitu zitezen errogatibak antolatzen zituzten. Eta beste hamaika horrelako.

Keinu horiek ez dira sineskeriatzat hartu behar, Jainkoari eta Jainkoaren bitartekariak ziren santuei egindako eskaera eta erregu gisa hartu behar ditugu.

Baina, jakina, bihotzez eta fedearekin egin behar. Garatxoak edo *garitxuak* kentzeko edo azaleko gaixoak osatzeko, garai batean, Berriatuko Madalena-Arantzadi edo *Maalantzei* ermitaren aldameneko putzura joaten ziren mutrikuarrak. Hara joaten ziren, bai, baina ez edonola. Edadeko mutrikuar batek esan zidanez, «baiña hara fediakin jun bihar da. Fediakin juten ezpada...».

Fedea aukerakoa da, jakina. Horregatik herritar batzuek ez dute sinisten; beste batzuk, aldiz, sinistuta gaude fedea oparia dela, espero gabe jaso dugun erregalua, Jaungoikoarengandik, familiarengandik eta herriarengandik jaso duguna.

Josu Larrañaga Arrieta

BERTAN
Mutrikuko Merkatarien Elkartea

Mutrikuko dendariak mutrikuarrentzat zabalik

MADARIAGA .....

32 urte baino gehiagoko ibilbidearekin, Madariagak gertuko merkataritzaren balioari eusten dio Mutrikun. Gaur egungo dendak duela 24 urte ireki zituen ateak Erdiko Kalen, aurretik Atxukalen hasitako ibilbideari jarraipena emanez.

Familia-giroko denda honetan, bezero bakoitzak leku berezia du. Arreta pertsonalizatua, gertutasuna eta konfiantza dira eguneroko lanaren oinarriak; izan ere, Madariagan saltzea baino gehiago da bezero bakoitzari entzun eta behar duena aurkitzen laguntzea.

Eskolako materiala eta papergintza, haurrentzako jolasak eta puzzleak, opariak, koloniak, bufandak, poltsak eta bestelako osagarriak aurki daitezke bertan. Horrez gain, fotokopiak, dokumentuen eskaneatzea, plastifikazioa, koadernaketa eta koadroen enmarkazioa ere eskaintzen ditu.

Madariagaren benetako balioa ez dago soilikub eskaitzen diren produktuetan, baita bezeroekin sortutako konfiantzazko harremanetan ere.



MGS aseguruak

MGS Aseguruak 50 urtetik gora darama mutrikuarron artian. Gure helburua beti izan da pertsonak zentruan jarritxa, komertzio, herritar eta enpresa bakoitzari bere biharren araberako asegurua eskeintzia, hortarako ahalik eta eskeintza egokiena eginez.

MGS-en pentsatzen deu bezeroei egiten dixeun eskeintzak oinarritxuta eon bihar diala konfiantzan, gertutasunian eta eguneroko harremanetan. Bertakoa babestuz, herria eginez.



LORETXU taberna

1930 urtean ireki zen Loretxu taberna eta Jose Mari Muñozek zuzendutako taldeak, tabernaren 100. urteurrenaren bila, eguneko lanaren apostua egin du, gaua gutxika-gutxika bigarren maila baten utzita. Pintxoen eskaintza indartu dute, eta domeketako txanpiñoia dute berezitaun preziatuena, Enkarnaren errezetatik ikasitako saltsa eta guzti.



BERTAN
Mutrikuko Merkatarien Elkartea
... zure alboan

https://mutrikubertan.eus/

https://www.instagram.com/mutrikubertan/

1936ko iraila: Mutriku eta Debabarrenako frontearen sorrera

1936ko irailean, Donostia erori ondoren, Gipuzkoako gerraren norabidea aldatu egin zen. Errepublikaren aldeko indarrek atzera egin behar izan zuten, eta Deba ibaiaren harana defentsa-lerro berri bihurtu zen. Irailaren 22tik aurrera, Mutriku eta Ondarroa inguruko mendietan borroka gogorrak izan ziren.

1936ko irailean Mutriku eta Deba Barrenan gertatutakoa ulertzeko, lehenik Donostiaren erorketaren ondorengo egoeran kokatu behar dugu. Irailaren 13an Donostia tropa matxinatuen esku erori ondoren, Errepublikaren aldeko indarrak Gipuzkoan barrena atzera egiten hasi ziren. Indar horiek ez ziren armada erregular bateko unitate bakarrak: sindikatuetako miliziak, alderdi politikoetako miliziak, ordena publikoko indarrak eta Errepublikarekiko leial jarraitzen zuten militarrak ziren. Atzerakada horren aurrean, defentsa-lerro berri bat antolatu behar izan zuten. Lurraldearen orografiak aukera bat eskaintzen zuen: Deba ibaia. Arlabango portutik, Arabako mugatik, Debaraino, ibaiak hegoaldetik iparraldera doan haran bat osatzen du. Bereziki ibaiaren ekialdeko mendietan, defentsa-posizio berriak antolatzeko aukera eskaintzen zuen. Baina defentsa-lerro berri bat sortzea ez zen lan erraza. Atzera egiten ari ziren indarrak berriro bildu, antolatu eta armamentuz eta horniduraz hornitu behar ziren. Aldi berean, posizio berriak ahalik eta azkarren prestatu behar ziren, tropak babestu eta erasoari eutsi ahal izateko. Eta horri beste errealitate bat gehitu behar zaio: tropen atzetik biztanleria zibila ere mugitzen ari zen. Familia askok etxea utzi zuten, tropa matxinatuen aurrerapenaren beldur, eta ondorengo gertakariek erakutsi zuten beldur horrek bazuela oinarria.

Urolatik Debara

Donostia hartu ondoren, tropa matxinatuek irailaren 14, 15 eta 16a beren indarrak berrantolatzen eta materialez hornitzen eman zituzten. Helburua argia zen: Gipuzkoan aurrera egiten jarraitzea, Bizkaian sartzea eta, azken batean, Bilbora iristea. Mutrikuren galeraren prozesua egun haietan hasi zen. Iruretagoienaren zutabeak Zumaia eta Arrona-Zestoa inguruan ezarri zuen bere lerroa. La Torre zutabeak Zarautz, Zumaia eta Arrona hartu zituen, eta Cayuela zutabeak Zestoa. González Unzaluk, berriz, Zubialden ezarri zuen bere posizioa. Urola ibaiaren inguruan antolatutako lerro hori izango zen Deba aldera aurrera egiteko abiapuntua. Une hartan, tropen mugimenduak antolatzea funtsezkoa zen. Ibilbideak zehaztu behar ziren, eta kamioiak eta bestelako ibilgailuak prestatu, tropak eta materiala ahalik eta azkarren mugitu ahal izateko.


Irailaren 22a: Deba galtzen da

Irailaren 22an iritsi zen lehen une garrantzitsua. La Torre zutabeak Deba hartu zuen, Zumaia eta Deba arteko kostaldeko errepidetik aurrera egin ondoren. Itziar ingurutik igaro ziren, eta hamar ordu behar izan zituzten ibilbidea egiteko. Zutabeak 12 baja izan zituen. Aurrerapen horrek errepublikanoen atzerakada ekarri zuen. Deba defendatzen zuten miliziek Mutrikurantz egin zuten ihes, 12 hildako eta 42 zauritu utzita. Cayuela zutabeak, berriz, kamioietan egin zuen aurrera Azkarate aldera. Bertan ibilgailuak utzi behar izan zituzten, eta oinez jarraitu zuten Alzolaraino. Gau hartan herriaren mugan gelditu ziren. Bederatzi baja izan zituzten. Egun berean, Pradas komandantea Arronan geratu zen eta Unzalu komandanteak Zumaia okupatu zuen. Hemen bada kontuan hartu beharreko xehetasun bat. Gaur egun ezagutzen ditugun datu horietako asko tropa matxinatuen operazio-parteetatik eta egunerokoetatik datoz. Dokumentu horietan jasotzen zituzten beren aurrerapenak, borrokak eta galerak. Horregatik, aipatzen diren baja kopuruak behin-behinekoak dira eta etorkizunean berrikusi beharko lirateke, alde errepublikanoaren dokumentazioarekin alderatu ahal izateko. Garai hartan, gainera, Errepublikaren aldeko defentsa ez zegoen oraindik Eusko Jaurlaritzaren egitura militarraren barruan antolatuta. Gipuzkoako defentsa-batzordeek eta miliziek kudeatzen zuten defentsa, eta unitateak konpainia edo batailoi mailan antolatzen ziren, kasuaren arabera.

Irailaren 23a: Deba ibaiaren mendebaldeko ertza

Irailaren 23ko goizean, Unzalu komandantearen zutabea kamioietan iritsi zen Debara. Helburua Mendaro kontrolatzea eta handik Arno mendiko 608 metroko kota hartzea zen. Pradasen indarrek, berriz, Arronatik Mendarora egin behar zuten aurrera. Bien bitartean, Errepublikaren aldeko indarrak Deba ibaiaren mendebaldeko ertzean kokatzen hasi ziren. Fronte berri bat ari zen sortzen.

Elgoibartik kostalderaino herriak hartuz joan ziren tropa



matxinatuak, eta eremu hori bihurtu zen Errepublikaren aldeko defentsa-lerroa hausteko abiapuntu berria.

Lurranga Undiko erresistentzia

Irailaren 24an, La Torre zutabeak eraso egin zien Lurranga Undi inguruko posizio errepublikanoei. Erasoak ez zuen arrakastarik izan. Posizio horiek defendatzen zituzten milizianoek erresistentzia gogorra egin zuten. Tropa matxinatuen parteen arabera, erasoak 31 baja eragin zituen, hildako eta zaurituen artean. Lurranga Undiko borrokek, gainera, memoria historikoaren atal bat utzi dute gaur egunera arte. 2022ko urriaren 2an miliziano baten gorpuzkia lurpetik atera zuten toki horretan. Aurkikuntza hori Buztiña baserriko Kontxi Urkiri Alzibarren testigantzari esker egin ahal izan zen. Saturraran Memoria Historikoa elkarteko kideek jaso zuten elkarrizketa 2021eko ekainaren 26an, *https://ahotsak.eus/mutriku/hizlariak/kontxi-urkiri-altzibar/* Intxorta Elkartearekin elkarlanean. Elkarrizketa egin ondoren, Kontxiren familiarekin gorpuzkia zegoen lekura bertaratu ziren. Horrela, uztailaren 12an, Saturraran elkarteko kideek Aranzadi Zientzia Elkartera helarazi zuten dokumentu batean aurrez jasotako ebidentzia guztiak (Saturraran Memoria Historikoa, 2021). Eta, aipatu bezala urte bete beranduago, 202ko urriaren 2an Lurdes Herrastiren eta Paco Etxeberriaren gidaritzapean berreskuratu ziren milizianoaren gorpuzkiak. Horrelako aurkikuntzek erakusten dute 1936ko gerraren aztarnak oraindik ere gure mendietan daudela.

Arno menditik kostaldera


Irailaren 25ean ez zen aldaketa handirik izan. Irailaren 26an, La Torre zutabeak Lurranga Undi inguruko posizioei eutsi zien. Bitartean, Unzaluren indarrak Arno menditik behera egiten hasi ziren. Helburua defentsa errepublikanoak hegoaldetik inguratzeko maniobra bat egitea zen. Horretarako, Arno mendia, Arramieta eta Kalbario inguruko mendilerroa baliatu zituzten, kostalderantz aurrera eginez. Irailaren 27an maniobrak jarraitu zuen, eta Errepublikaren aldeko indarrak atzera egitera behartu zituzten. Helburua Lurranga Undiko defentsa bi norabidetatik inguratu eta isolatzea zen: batetik, La Torre zutabea Debatik aurrera; bestetik, Unzalu Arno menditik behera.

Itsas armadaren bonbardaketa

Egun berean, Errepublikaren aldeko itsas armadako ontziak ere agertu ziren. Mediterraneotik etorritako Jaime I korazatuak eta Cervantes eta Libertad gurutzaontziek Deba bonbardatu zuten. Arratsaldean, Arno mendiko posizioei ere eraso egin zieten itsasotik. Helburua tropa matxinatuen aurrerapena geldiaraztea zen. Baina lurreko operazioak ez ziren eten.

Irailaren 27a: Mutriku erortzen da

Egun horretan bertan iritsi zen Mutrikurako une erabakigarria. Mutriku tropa matxinatuen esku erori zen, defentsa gogor baten ondoren. Herria defendatzen zuten indar errepublikanoek erresistentzia handia egin zuten, baina atzera egin behar izan zuten. Borroketan baja ugari izan zituzten, eta metrailadore bat, munizioa eta elikagaiak galdu zituzten. Defentsa ez zen, ordea, amaitu. Mutrikutik Ondarroarako bidean dauden mendietara egin zuten atzera indar errepublikanoek, eta altuera horietan berriro antolatu zuten defentsa. Indar horiek ondo armatuta eta munizioz hornituta zeuden, eta tropa matxinatuek erresistentzia handiarekin egin zuten topo. Tropa matxinatuen parteen arabera, beren galerak honako hauek izan ziren: buruzagi bat, 10 ofizial eta 100 soldadu. Kopuru hori, beste behin ere, iturri horietan oinarritzen da eta beste dokumentazio batekin kontrastatu beharko litzateke.



Irailaren 28a: frontea Ondarroan finkatzen da

Irailaren 28an, eguraldi txarra eta euri-erauntsi gogorra izan arren, borrokek jarraitu egin zuten Ondarroa inguratzen duten altueretan. Eremu horretan ezarriko zen frontea, eta 1937ko apirilera arte iraungo zuen. Garai hartako operazio-parteek eta egunkariek borroken gogortasuna azpimarratzen dute. Dokumentu horietan jasotzen denaren arabera, Donostia erori zenetik ez zuten aurrez aurreko halako erresistentzia gogorrik aurkitu. Mutriku, Deba eta Ondarroa inguruko mendiek, beraz, Gipuzkoako gerraren fase berri baten lekuko izan ziren.

Bilbotik fronterako errefortzuak

Borroka horiek gertatzen ari ziren bitartean, Bilbon ere defentsa antolatzen ari ziren. Irailaren 23an, Lezo de Urrecietak itsasontziz ekarritako armamentua iritsi zen Bilbora. Arma horiekin Bilbon osatzen ari ziren konpainiak hornitu ziren, ondoren frontera bidaltzeko. Irailaren 25ean Sabino Arana konpainia Elgeta eta Kalamua arteko frontera iritsi zen. Horrek erakusten du egun haietan Errepublikaren aldeko defentsa-unitate berriak osatzen eta frontera bidaltzen ari zirela. Mutriku eta Deba Barrenako fronteak ere errefortzu horien beharra izango zuen, nahiz eta oraindik dokumentazio gehiago behar den unitate horien presentzia zehaztasunez identifikatzeko.

Mutriku, fronte baten barruan

Mutriku ez zen gerraren pasarte isolatu bat izan. Deba ibaiaren harana baliatuz antolatutako defentsa-lerro zabalago baten barruan kokatu behar da. Irailaren 22an Deba galdu zenetik, urriaren 4an Intxortetan aurrerapena gelditu zen arte, borrokek jarraitu zuten Gipuzkoako eta Bizkaiko mugaren inguruko mendietan. Egun horietan gudari eta milizianoek lurraldeari eusteko borrokatu zuten, eta borroka horiek denbora irabazteko aukera eman zuten, defentsa politiko eta militar berri bat antolatzen zen bitartean. Urrian Eusko Jaurlaritza sortu zen, eta Euskal Autonomiaren antolaketa politiko berria abian jarri zen. Horregatik, 1936ko irailean Mutriku, Deba eta Ondarroa inguruan gertatutakoa ez da soilik fronte bateko kronika militarra. Herrietan bizi ziren pertsonen historia ere bada: borrokalariena, hildakoena eta zaurituena, etxea utzi behar izan zuten familiarena eta gerraren ondorioak zuzenean bizi izan zituzten herritarrena. Gaur egun dokumentuak aztertzen, testigantzak biltzen eta gorpuzkiak berreskuratzen jarraitzen da. Lan horri esker, pixkanaka, duela 90 urte gertatutakoaren kontakizuna osatzen ari gara.

Mutrikuko eta Debabarrenako mendiek, oraindik ere, 1936ko iraileko borroken aztarna gordetzen dute. Haiek ezagutzea eta dokumentatzea gure historiaren zati bat berreskuratzea da.

Aitor Zenekorta

....ZORIONAGURRAK....



ILLART
Zorionak Illart! Dagoeneko 6 urte haunnnndi!!! Musu pilooo zuretzat. Zorionak!!



ZIHARA
Bost urte haundi bete dituzu urriaren 23an! ZORIONAK Zihara! Muxu eta besarkada goxoak etxekoen partez! Maite zaitugu!!



LIAM
Zorionak Liam, azaruan 4an 5urte handi!! matxo handi bat familian partez



LIDE
Zorionak Lide!!! Mundiala zea eta piiiiila bat maite zaitugu! 11 muxu potolo! Mmmmuak!!!



ARANTXA
Zorionak Arantxa! Ondo ospatu zure seigarren urtebetetzia eta muxu asko Itziarren eta Manuren partez



JULEN
Zorionak, Julen!



ANE eta ANDER
Zorionak bikote! 4 urte gure sorgiñak eta makiña bat gehixo aitak! Teinkarak belarrixan eta propiñia! Ondo pasau!



ALEN eta LUKEN
Zorionak bikote!Azaroak badu bere xarma zuekin!
matxe matxe



LIER
Zorionak Lier, beti zoriontsu ikusi nahi zaitugu argazkian bezala!! Musu erraldoi bat denon partetik



JOAKIN
Zorionak aitxona! Dendako kandela denak atzenda nekatuta? Ospatu beharko diagu ba geuk ere!



AURO
Erretiroa hartu eta ezin geldituta... zure urtebetetzea ospatzeko gelditu eta topa egin daigun! Zorionak lagun!

ZORIONTZEKO eta ARGAZKI ZAHARRAK ERAKUSTEKO

aldizkaria@kalaputxi.eus
whatsapp 635748393

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku



Kalbaixo
JATETXEA
Laranga Auzoa
Tel. 943 60 32 56
kalbaixo@gmail.com
MUTRIKU - Gipuzkoa

Argazki Zaharrak



Txurruka anai-arrebak, 1968 urte inguruan
Jesusa, Eugeni, Pedro eta Martina Txurruka anai-arrebak.



1959 urte inguruan
Maria Victoria Txurruka Alkorta «Txikito» Idiari helduta.

EUSKALINPRI
Soluzio grafikoak • Soluciones gráficas

ZURE NEGOZIOA SUSTATZEKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

NURIA VÁZQUEZ
M.659 45 36 57
nuria.vazquez@euskalinpri.com

T. 943 19 20 36
info@euskalinpri.com

Irudi korporatiboa: logotipo
Logotipoa + eskuliburua
Argitalpen grafikoa
Katalogoak
Kartelak
Offset inprezio lana
Inprezio digitala

2026ko farmazia guardiak

AZAROA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
16 Lasuen Ele	17 Lasuen Ele	18 Lasuen Ele	19 Lasuen Ele	20 Lon Apraiz	21 Lon Apraiz	22 Lon Apraiz
23 Burgoa	24 Burgoa	25 Burgoa	26 Burgoa	27 Zalduegi	28 Zalduegi (1)	29 Zalduegi

ABENDUA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

30 Lon Apraiz	1 Lon Apraiz	2 Lon Apraiz	3 Lon Apraiz	4 Lasuen Ele	5 Lasuen Ele	6 Lasuen Ele
7 Zalduegi	8 Zalduegi	9 Zalduegi	10 Zalduegi	11 Burgoa	12 Burgoa (2)	13 Burgoa
14 Lasuen Ele	15 Lasuen Ele	16 Lasuen Ele	17 Lasuen Ele	18 Apraiz	19 Apraiz	20 Apraiz
21 Burgoa	22 Burgoa	23 Burgoa	24 Burgoa	25 Zalduegi	26 Zalduegi (1)	27 Zalduegi

EGUNEKO GUARDIA ZERBITZUA
09:00 - 22:00
Larunbat goizetan 09:30-13:00
Igande goizetan 11:00-13:00

Lasuen-Elezgarai.....626 611 392
Lon Apraiz.....630 055 097
Hiart Burgoa (Deba) 667 338 890
Amaia Zalduegi (Deba)... .669 262 201

GAUEKO GUARDIA ZERBITZUA
22:00 - 09:00
Mikel Lekunberri Alberdi...943 20 42 30
Isasi 31, 20600 Eibar

AGENDA

AZAROA

25	Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna		
26	Liburutegian	17:15	«Munduko ipuinak» Ines Bengoarekin
28	Zabielen	18:00	**ANTZERKIAZ BLAI** Anodino teatroa «Mamuak ezagutzera joan zen umea»
30	Astigarribiako San Adresen eguna		

ABENDUA

3	Euskararen nazioarteko eguna		
4	Zabielen	19:00	Bakarrizketa Imanol Epelderekin «Zerbait sartu zait begian»
11	Zabielen		Kirolaren gala
11	Gaztetxean		Abendurock kontzertua
14tik 18ra			Giza eskubideen erakusketa, Zabielen
16	Liburutegia	17:15	«Maridomingiren Kontzertua» Libe Estebaranz
18	Migratzaileen nazioarteko eguna		
18	Zabielen	18:30	Kulturaren gala
18	Parrokian	19:30	Musika Eskolaren Gabon Kontzertua
18	Gaztetxean		Abendurock
19	Herrian		Santo Tomas azoka
19	Gaztetxean		Abendurock, Bertsio gaua
24	Herrian		Olentzero eta Maridomingi kaleetan zehar
26	Zabielen		Musika Bandaren Gabonetako Kontzertu
26	Zubiaranen		Abendurock kontzertua

aldizkaria@kalaputxi.eus
whatsappa 635748393
abenduko aldizkarian
argitaratzeko
abenduaren 4rako
bidali zuen mezuak

MENDI-IRTEERAK 2026

Azaroak 16 Samiño – Izazpi – Mandubia (Burdinkurutz MT)
Abenduak 14 Mutrikun. Urteko azken txangoa (Burumendi MT)

BISITA GIDATUAK

· Zazpi hondartzak · Mutriku marinela · Olatu planta ·
· Nautilus, Flyscheko fosilak · Arrietakua jauregia ·
Turismo bulegoan edo www.geoparkea.eus helbidean

ODOLA EMATEA 2026
abenduak 19
2027 urtean: ots 19 - mai 14 - abu 6 - aza 19
17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan
Gipuzkoako Odol Emaileak

zuen elkartearen ekitaldien berri emateko idatzi helbide honetara:
aldizkaria@kalaputxi.eus
eta hemen argitaratuko ditugu iragartzeko dituzuenak

VITORIAOPTIKA

OPTIKA - AUDIFONOAK

AUDIOPROTESISTA
EGUNERO ZENTROAN
AUDIOMETRIA DOAN

AUDIFONOAK BERRITZEKO
GURE PROMOZIOEI
BURUZ GALDETU

ERRIBERA 16 • 48700 ONDARROA (BIZKAIA)
94 613 41 38 optikavitoriaondarroa@gmail.com





Samiela

Eskola multikultura

Lehen urratsak, lehen barreak, nortasuna eraikiko duten lehen esperientziak!

HAUR ESKOLA

URTE OSOAN

MATRIKULA ZABALIK

DOAKOA

ORDUTEGI MALGUA

(7:30-18:30)

UZTAILEAN ZABALIK

zuzendaritza@samiela.eus 943 60 31 95